

Olentzero maitea:

Urtero idazten dizut eta dagoeneko oso ona naizela badakizu. Hortaz, harira joan gaitezen.

Egia esan, hamaikatxo gauza behar ditut baina, ez kezkatu. Behar dudan guztia ez litzateke zure leran sartuko eta, gainera, ume guztien oparientzako lekua behar duzu. Dena den, guztia kontrolpean daukat.

Niretzat, zerbait ikustezina zein ukiezina eskatzeko asmoa daukat, hau da, kemana! Badakit oso nahi arraroa dela, baina bentaila da zuretzat! Ez du lekurik betetzen, dohanik da eta, inportanteena, ez du kutsatzen!

Aparte, noski, niretzat inbertsio ezinhobea izango litzateke. Nahi dudan guztia lortzen lagunduko lidake, urte-berriko aginduak betetzen, jakina! Esate baterako, dieta egiteko nahiz buru-belarri ikasteko gai izango nintzateke. Honek guztiak neska dotore bihurtuko ninduke eta, denbora pasa ahala, izugarrizko xarmak eta adimenak bizitzan arrakasta handia lortzen lagunduko lidake.

Pentsa ezazu, Olentzero, bati baino gehiagori ondo etorriko litzaioke kemena izatea...

Agur bat!!  
Eli.